ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko abuztuaren 7a, asteazkena • 90 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

## BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Mugaiturri iturburuko ura Zalduondon (Araba) dagoen edateko ura erregulatzeko andelera bulkatzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa**

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17a(e) ko 285/2019 Erabakiaren bidez, “Mugaiturri iturburuko ura Zalduondon (Araba) dagoen edateko ura erregulatzeko andelera bulkatzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun baliodun eko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatien planoak eta eragindako titularren zerrenda Zalduondoko Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 31

*Bide Azpiegituren zuzendaria*
*CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

MUGAITURRI ITURBURUKO URA ZALDUONDON (ARABA) DAGOEN EDATEKO URA ERREGULATZEKO ANDELERA BULKATZEKO PROIEKTUA
PROYECTO DE IMPULSIÓN DE AGUA DEL MANANTIAL MUGAITURRI AL DEPÓSITO REGULADOR DE AGUA POTABLE DE ZALDUONDO (ÁLAVA)

Esp./Expte. 2019/6

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALERRIA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA $m^2$ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLIGONOA | LURZATIA | | | | BEHIN-BETIKOA | ALDI BATERAKOA | ZORTASUNA Ur-hoditeria (3m) + elektrizitate (3m) lurrazpiko akueduktua |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL TITULAR | DATOS CATASTRALES | | TERMINO MUNICIPAL | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | SUPERFICIE AFECTADA $m^2$ | | |
| | | POLÍGONO | PARCELA | | | | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE Acueducto de abastecimiento (3m) + electricidad (3m) |
| 1/000 | AYUNTAMIENTO DE ZALDUONDO | 1 | 497 | ZALDUONDO | MAKALDIA / CHOPERA | | 25 | 84 | 20<br>20 |
| 2/000 | J. FELIPE RUIZ CHASCO<br>M. BLANCA RUIZ CHASCO | 1 | 312 | ZALDUONDO | LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO | | 4 | 1.470 | 382<br>382 |
| 3/000 | PURIFICACION RIBAGUDA SAEZ DE NANCLARES | 1 | 324 | ZALDUONDO | LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO | | 8 | 2.098 | 543<br>543 |
| 4/000 | AYUNTAMIENTO DE ZALDUONDO | 1 | 177 | ZALDUONDO | ETZEA / ERIAL | | 4 | 133 | 30<br>30 |
| 5/000 | AYUNTAMIENTO DE ZALDUONDO | 1 | 172 | ZALDUONDO | ETZEA / ERIAL | | 8 | 1.416 | 364<br>364 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.07 05:30:51 Z